



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2015eko azaroaren 24a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldúa Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularume, Gotzon Igoa Agirrezabal, Amagoia Iribar Manzisidor, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Azaroaren 11ko 402/2015 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 11/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari onarpena ematen zaio, kreditua gaitzeko modalitatean.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 12/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.



- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 13/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua gaitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoaren, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta Orioko Udalaren artean izenpetu beharreko lankidetzaz hitzarmena, bide segurtasunaren arloko informazioa trukatzeko eta datu baseetan sartzeko.
- 5.- Amaia Dorronsoro Portularrume zinegotziak (EHBildu) bere karguari uko eginez aurkeztu duen idatziaren berri ematea.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- AZAROAREN 11KO 402/2015 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 11/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI ONARPENA EMATEN ZAIO, KREDITUA GAITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 11/2015 espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago eta 43.307 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 12/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 12/2015 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 16.069 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Amagoia Iribar (EHBildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 12/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 16.069 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Amaia Dorronsoro zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela honako arrazoiengatik:

- Kreditua aldatzeko espedientearen onarpena diktaminatzeko prozedura ez delako egokia izan: Ogasun batzordea atzo bertan egin zen eta horren deialdia ostiralean egin zen; horrek, bere ustez, garbi uzten du ez dagoela Udala osatzen duten talde politikoen arteko elkarlana bultzatzeko inolako asmorik.
- Adierazten du, baita ere, kreditua aldatzeko espedienteak aldaketak eragiten baditu Udalaren hainbat areatan, gaia dagokion batzorde informatzailean aztertu behar dela aldez aurretik, udal taldeek aukera izan dezaten beren ekarpena egiteko.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du kreditua aldatzeko espediente horren tramitazioan goitik behera bete dela aplikatu behar den araudia.



3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 13/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA GAITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 13/2015 espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago eta 56.928 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Amagoia Iribar (EHBildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 13/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago eta 56.928 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Amaia Dorronsoro zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela honako arrazoiengatik:



- Kreditua aldatzeko espedientearen onarpena diktaminatzeko prozedura ez delako egokia izan. Ogasun batzordea atzo bertan egin zen eta horren deialdia ostiralean egin zen; horrek, bere ustez, garbi uzten du ez dagoela Udala osatzen duten talde politikoen arteko elkarlana bultzatzeko inolako asmorik.
- Adierazten du, baita ere, kreditua aldatzeko espedienteak aldaketak eragiten baditu Udalaren hainbat areatan, gaia dagokion batzorde informatzailean aztertu behar dela aldez aurretik, udal taldeek aukera izan dezaten beren ekarpena egiteko. Adibidez, bere talde politikoen ustez, isunengatik lortu diren diruak (30.000 euro inguru) Munto sektoreko behin-behineko aparkalekua egokitzeko erabili behar ziren eta ez Bisiguaren Egunak sortutako defizita estaltzeko.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du kreditua aldatzeko espediente horren tramitazioan goitik behera bete dela aplikatu behar den araudia; baina bere garaian behin-behineko aparkaleku hori egin zenean, aurreko agintaldian, ez zela inolaz ere ezarritako lege-prozedura bete, obrak udal teknikarien txostenik gabe eta obra-zuzendaritzarik gabe egin baitziren.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TRAFIKOKO BURUZAGITZA NAGUSIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN, EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEAN IZENPETU BEHARREKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BIDE SEGURTASUNAREN ARLOKO INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA DATU BASEETAN SARTZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EA), Salsamendi (EA), Del Hoyo (EA), Campos (EA), Cotado (EA), Bello (EA) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Emeterio Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Amagoia Iribar (EHBildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoaren, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta Orioko Udalaren artean izenpetu beharreko lankidetzaren hitzarmena, bide segurtasunaren arloko informazioa trukatzeko eta datu baseetan sartzeko.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari lankidetzaren hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.



5.- AMAIA DORRONSORO PORTULARRUME ZINEGOTZIAK (EHBILDU) BERE KARGUARI UKO EGINEZ AURKEZTU DUEN IDATZIAREN BERRI EMATEA.

Udaleko idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Amaia Dorronsoro Portularrumek (EHBildu koalizio politikoaren zerrendako bigarrena 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan, eta zinegotzi hautatua) idatzia aurkeztu duela, udalbatzarrari zuzendua, eta bertan honako hau adierazten duela: **UKO EGITEN DIOLA** Orioko Udaleko zinegotzi karguari, idatzian azaltzen dituen arrazoiengatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 9.4 artikuluan ezarritako prozedura betez. Idatzian Amaia Dorronsoro Portularrumek eskatzen dio udalbatzarrari bere uko egitea onartzea eta ordezkoa izendatzea, Hauteskunde-Araubide Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

Udalbatzarrak, bestalde, Juan Vicente Lasa Karrikaburuk aurkeztutako idatziaren berri jaso du. Juan Vicente Lasa Karrikaburu EHBildu koalizio politikoaren zerrendako bosgarrena zen 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan eta, idatzi horren bidez, **ONARTU EGITEN DU** Orioko Udaleko zinegotzi gisa izendatua izatea, Amaia Dorronsoro Portularrumeren ordezkari, EHBildu koalizio politikoa ordezkatzeko, Hauteskunde Araubide Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera; adierazten du, baita ere, ez zaizkiola aplikagarri Hauteskunde-Araubide Orokorreko Lege Organiko horren 6., 177. eta 178. artikuluetan jasotzen diren ezin aukeratua izateko arrazoiak. Hori guztia, Juan Vicente Lasa Karrikabururi Orioko Udaleko zinegotzi hautatu izaera aitortzen dion kredentziala emateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, indarrean dagoen araudian ezarritakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA Amaia Dorronsoro Portularrumek EHBildu koalizio politikoa ordezkatzuz betetzen duen Orioko zinegotzi karguari uko egitea eta honako idatziaren **JAKINAREN GAINEAN GERATZEA**: Juan Vicente Lasa Karrikabururen idatzia, Orioko Udaleko zinegotzi gisa izendatua izatea onartuz, Amaia Dorronsoro Portularrumeren ordezkari, EHBildu koalizio politikoa ordezkatzeko.

2.- BIDALTZEA udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzeko ziurtapena Madrilgo Hauteskunde Batzorde Zentralaren Presidenteari, Juan Vicente Lasa Karrikabururi Orioko Udaleko EHBildu koalizio politikoko hautagaitzako zinegotzi izaera aitortzen dion kredentziala eman dezan, kargu hori betetzeko, hutsik baitago Amaia Dorronsoro Portularrumek aurkeztu duen eta udalbatzarrak onartu dion kargu uzteagatik. Hori guztia, Hauteskunde Araubide Orokorreko Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki



Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, bere talde politikoak udalbatzar honetan eman dituen abstentzio-botoen arrazoiak azaltzeko, guztiz bat datozenak EHBildu taldeak adierazitakoekin. Adierazten du, baita ere, bere talde politikoa ez dagoela Orioko Udalean denbora galtzeko, baizik-eta gogoz eta tinko lan egiteko Orioko herriaren alde; eta uste duela udaleko talde politiko guztiek modu bateratu eta koordinatuan egin behar dituztela udaleko lanak.

Gotzon Igoa zinegotziak (EHBildu) hartzen du hitza eta alkateari galdera egiten dio Motondon aeromodelismoaren praktika gelditzeko aurkeztutako idatziari buruz. Alkateak erantzuten dio, esanez udal aholkulari juridiko Ibai Lertxundiri eskatu diola erantzun-idatzi bat prestatzea, gero berak bidaltzeko, eta idatzi hori prest dagoen bezain laster bidaliko zaiela Udala osatzen duten talde politiko guztiei.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,